

Maria Luisa Mendizabal Aiastui
Antzuola, Gipuzkoa (1928)

Aurkibidea

Biografia

Basalde auzoko Aritzagabasalde baserrian jaio zen 1928an. Ezkondu zenean kalera joan zen bizitzera. Bere anaia Danielekin batera egin zitzaion elkarrizketa.

Zintak

ANT-036

- **Proiektua:** Antzuolako ahozko ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k):** Larrea Mendizabal, Imanol
- **Data:** 1997-01-25
- **Iraupena:** 90 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Eider

Pasarteak

1. Etxeko ardien bizimodua

- **Erref:** ANT-036/002
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:00:08. **Bukatu:** 00:01:48

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Berrogeitaka ardi izaten zituzten etxean, eta etxe inguruko zelaietan egoten ziren Gabonetatik maiatzera bitartean. Maiatzetik aurrera, mendira joaten ziren ardiak, txabolara. Txabolak "Ipurtika" izena zuen. Beraiek egunero joaten ziren txabolara ardiak zaintzera.

2. Ardien arteko bereizketak

- **Erref:** ANT-036/003
- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 00:01:48. **Bukatu:** 00:04:21

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Ardiak jaiotzen direnean, arra edo emea izan izen desberdina ematen zaie. Jaiotzean, bildotsak izaten dira; eta handik urtebetera, urte-bildotsak. Urte-bildotsei buztana mozten zieten udazkenean, eta otsail aldera mendira igo. Ardi antzuei buruz hitz egiten du. Arkazteak deitzen zitzaien bi urteko ardiei.

3. Ardiak basotik etxera

- **Erref:** ANT-036/005
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:04:29. **Bukatu:** 00:05:50

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Udazkenean, ardiak basotik etxera erretiratzen zituzten, bestela hil egiten ziren eta. Martxo eta maiatz artean jaiotzen ziren bildotsak.

4. Ardiak ernari

- **Erref:** ANT-036/006
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:05:50. **Bukatu:** 00:06:48

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

<p>Bildotsa izan aurretik, ardiei janari berezia ematen zitzaien: belar-ondoak, baba-lastoak eta pentsua. Ardiak ernari zeudenean, nola antzematen zitzaien aipatzen du.</p>

5. Ardi klaseak

- **Erref:** ANT-036/007
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:06:48. **Bukatu:** 00:08:38

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Klase bateko ardiak izaten zituzten, baina desberdinak ziren beren artean. Beste baserri batean izaten zuten ardi klasea deskribatzen du. Basoan ibiltzen diren ardi txikiei sasiardi esaten zaie.

6. Ardi-moztea

- **Erref:** ANT-036/009
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 00:11:15. **Bukatu:** 00:13:32

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Ardi-moztea San Juan egun inguruan egiten zen, eta anaia arduratzen zen horretaz. Artile gehiena saldu egiten zuten, estimazio handia baitzuen artileak garai hartan. Artilea moztu eta zakutan sartzen zuten. Ardiak eta bildotsak noiz eta nola banantzen zituzten azaltzen du.

7. Ardien esnea

- **Erref:** ANT-036/010
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:13:32. **Bukatu:** 00:15:07

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Ardien esnearekin gazta egiten zuten. Esnea marmitatan eta kaikutan jaisten zuten. Kaikuak nolakoak izaten diren deskribatzen du. Ardiak eskortan jezten zituzten. Esne harekin, egunero gazta bat (eta batzuetan baita bi ere) jezten zituzten.

8. Gazta nola egin (I)

- **Erref:** ANT-036/011
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:15:07. **Bukatu:** 00:16:39

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Ardien esnearekin, egunero gazta bat (eta batzuetan baita bi ere) egiten zuten. Gazta nola egiten zuten azaltzen du.

9. Gazta nola egin (II)

- **Erref:** ANT-036/013
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:18:15. **Bukatu:** 00:19:13

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Gazta nola egiten zuten azaltzen jarraitzen du.

10. Gazta lehortu bitartean, katuak inguruan

- **Erref:** ANT-036/014
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:19:13. **Bukatu:** 00:20:15

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Barreta eta apalez osatutako altzari batean uzten zuten gazta, lehor zedin. Baina gaztaz gain, beste jaki batzuk ere uzten zituzten. Arazoak izaten zituzten, baina, katuekin, janariaren inguruan lardaskan ibiltzen baitziren.

11. Gazura eta gazuraren mamia

- **Erref:** ANT-036/015
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:20:15. **Bukatu:** 00:21:48

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Gaztaren urarekin gazura egiten zuten. Gazura nola egiten zuten azaltzen du. Gazura egositakoan, gazuraren mamia lortzen zuten, eta hura zoparekin nahasten zuten. Soberan gelditutako ura txerriei botatzen zioten. Gazta gutxi batzuk etxean jaten zituzten, baina beste guztiak saldu edo uda-udazkenerako gordetzen zituzten.

12. Gazta nola egin (III)

- **Erref:** ANT-036/016
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:21:48. **Bukatu:** 00:23:41

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Gaztak lehortu eta azala ateratzen zitzaizenean, galbahean jartzen zuten, suaren kearen gainean.

13. Gaztaren azken ukituak eta salmenta

- **Erref:** ANT-036/017
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:23:41. **Bukatu:** 00:25:12

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

Gaztak gaztaren ontzitik ateratakoan, plater batean jartzen ziren: hasiera batean ez zioten pisurik jartzen gainean, baina gerora bai. Ama joaten zen gazta saltzera.

14. Ardiak larrean eta mendian

- **Erref:** ANT-036/018
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:25:12. **Bukatu:** 00:27:00

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Ardiak larrean zebiltzanean, norbaitek egon behar izaten zuen beti haiek zaintzen. Txakurra ere ondoan izaten zuten ardiak zaintzeko. Mendian, ordea, ardiak bakarrik ibiltzen ziren. Kanpoko artzain asko pasatzen ziren ingurutik, baina ez zen egoten haientzako janaririk, eta beste norabait joaten ziren. Artzain horiek artalde handiak izaten zituzten.

15. Ardien gorputzeko zatiak

- **Erref:** ANT-036/019
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:27:00. **Bukatu:** 00:28:06

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Ardien eta behien azazkalei kasko edo pelo esaten zaie; eta ardiek gainean izaten duten ileari motots.

16. Okaila

- **Erref:** ANT-036/020
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:28:06. **Bukatu:** 00:30:51

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Okailari buruz hitz egiten du. Haren kontrako sendagaia ardiei emateko komeriak izaten zituzten. Garai hartan ardiak ez zituzten eramaten al baitariarengana. Ganaduren bat gaixotzen zenean zer egiten zuten azaltzen du. Urtero gaixotzen zen ardiren bat okaila zela eta.

17. Ardi-herrena

- **Erref:** ANT-036/021
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:30:51. **Bukatu:** 00:32:08

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Ardiek izaten duten beste gaixotasun bati buruz hitz egiten du, hain zuzen ere, ardi-herrenaz: nondik etorri zen, nola eragiten dien ardiei...

18. Ardiengandik lortutako janaria

- **Erref:** ANT-036/023
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:34:07. **Bukatu:** 00:36:00

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Ardien lehenengo esnari "oreitza" esaten zaio, eta bildotsek edaten zuten hura. Bihotz-belarriei buruz hitz egiten du. Bildotsaren odolarekin prestatutako beste jaki bat ere aipatzen du.

19. Ardia hiltzea

- **Erref:** ANT-036/024
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:36:00. **Bukatu:** 00:37:51

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Ardia etxean nola eta nork hiltzen zuen azaltzen du. Ardiaren larruarekin zer egiten zuten aipatzen du.

20. Ardia hildakoan zer egin

- **Erref:** ANT-036/025
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:37:51. **Bukatu:** 00:39:13

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Ardia hildakoan, hura nola garbitzen eta prestatzen zuten azaltzen du.

21. Haragi-jokoak

- **Erref:** ANT-036/027
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:40:26. **Bukatu:** 00:41:23

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Aisia » Taberna giroa » Jokoak

Laburpena:

Haragi-jokoak non egiten ziren eta zer egiten zen haietan azaltzen du.

22. Ardiei jaten ematen

- **Erref:** ANT-036/029
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:42:58. **Bukatu:** 00:44:47

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

<p>Ardiei belar-ondoa non eta nola ematen zitzaaien azaltzen du.</p>

23. Ardiak etxean non eduki

- **Erref:** ANT-036/030
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:44:47. **Bukatu:** 00:46:14

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Ardiak non edukitzen zituzten azaltzen du. Sahatsaz eta garoz hitz egiten du.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-12-19

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com